

ARGIBIDEAK

**IRAKASLEEK, IKASLEEK ETA UPV/EHUz KANPOKO PERTSONEK EDO ERAKUNDEEK
 UPV/EHUko GIZARTE LANGINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLARI
 EGINDAKO ESKARIEN KUDEAKETA**

237. prozeduraren eranskina

Prestakuntza osagarria/etengabea

BERRIKUSPENA ETA EGOKITZAPENA			
BERRIKUSPENA	DATA	ALDAKETAREN DESKRIBAPENA	
0	2011/03/17	Lehenengo bertsioa	
	2013/01/15	Eskaera fitxaren errebisioa	
Egin du:	Berrikusi du:	Onartu du:	Arduraduna:
Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolak	Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako Zuzendaritzak	Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako Batzarrek	Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako Zuzendaritza

ARGIBIDEAK

IRAKASLEEK, IKASLEEK ETA UPV/EHUz KANPOKO PERTSONEK EDO ERAKUNDEEK
UPV/EHUko GIZARTE LANGINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLARI
EGINDAKO ESKARIEN KUDEAKETA

EKINTZAK	ARDURADUNAK
<p>Eskolako giza-baliabideekin, baliabide teknikoekin eta baliabide materialekin zerikusia duten eskariak zuzendariarengan zentralizatuko dira.</p>	<p>Zuzendaria</p>
<p>Eskariak honako hauek egin ahal izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - UPV/EHUko irakasleek - Eskolako ikasleek - Unibertsitatez kanpoko eragileek: erakunde publikoek, erakunde sozialek, eta erakunde profesionalek. 	
<p>Nolanahi ere, eskariak idatziz egin beharko dira (ikus eranskinak), eta Ikastegiko Zuzendaritzara helarazi beharko dira. Eskariak posta arruntez bidal daitezke, edo posta elektronikoz, honako helbide honetara: direccion.GLUE@ehu.es edo charo.ovejias@ehu.es</p>	
<p>Zuzendariari dagokio egindako eskariak egokiak ote diren erabakitzea.</p> <p>Irizpideak: Eskolaren eta ikasleen interesak bermatzea, eta Eskolako irakaskuntza-eskaintza bikoiztu dadin saihestea.</p> <p>Beharrezkoa denean, lehenetsunak ezarriko dira.</p>	
<p>Eskaria onartzea erabakitzen bada, jarduerak antolatzeke garaian kontuan hartuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - proposatutako ekintzek ezin dituztela oztopatu ikasleen jarduera akademikoak, eta hortaz, ekintzak ezin izango direla egin ikasleen eskola-orduetan. - proposamenak interes berezikoak direnean bakarrik, irakasgai bateko eskaintzan integratu ahal izango direla, baldin eta irakasleak egokitzat jotzen badu. 	
<p>Eskaria onartzen bada, zuzendariak Eskolako arduradunari bidaliko dio, kudea dezan.</p>	

Eskarien kudeaketa eta arduradunak	
<ul style="list-style-type: none"> ▫ Dibulgazio-ekintzak egiteko lekuen eskariak, ikasgelak okupatu gabe. 	Atezaintzako langileak
<ul style="list-style-type: none"> ▫ Ikasgelen esleipenean eragina duten eskariak, Ikastegiko irakaskuntzan eraginik izan gabe; hau da, ikasleen eskola-orduetatik kanpo. <ul style="list-style-type: none"> ▫ Ikasgela bat esleituko da, eta jardueraren zabalkundea egiten lagunduko da. 	Akademia Antolakuntzako zuzendariordea edota Zuzendaritzako idazkaria
<ul style="list-style-type: none"> ▫ Interesgarriak direlako irakasgai bateko eskaintzan integratzea egokitzat jotzen den eskariak, eta hortaz, ikasleen eskola-orduetan egingo direnak: <ul style="list-style-type: none"> ▫ Proposamenari buruzko informazio gehiago bilduko da. ▫ Ataleko irakasleei jardueraren berri emango zaie, posta elektronikoz, eta aurkeztutako eskaria atxikiko zaie. ▫ Irakasle batek jarduera bere eskoletan integratu nahi badu, zuzendariordea ikasleekin koordinatuko da. 	Kalitate eta Berrikuntzako zuzendariordea eta edo Eskolako irakasleak
<ul style="list-style-type: none"> ▫ Irakasleek beren eskoletan integratzea erabaki duten eskariak: <ul style="list-style-type: none"> ▫ Irakasleak jarduera antolatuko du: erakundearekin harremanetan jarriko da, Zuzendaritzako idazkariari informazioa bidaliko dio (zabal dezan), eta jarduera gauzatzen lagunduko du. ▫ Era berean, Kalitatearen Zuzendariordetzari prozesuaren eta egindako ebaluazioaren berri emango dio. 	Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakasleak
<p>Jarduerari buruzko informazioa iragarki-taularen bidez zabalduko da, eta hala badagokio, web-orriaren bidez, erakundeak eman duen informazioa erabiliz.</p>	Zuzendaritzako idazkaria
<p>Prozesua amaitu ondoren, aurkeztu diren eskariak eta hartu diren erabakiak erregistratuko dira, eta artxibatu egingo dira, aurkeztu den dokumentazioarekin batera. Gutxienez, honako datu hauek erregistratuko dira:</p> <p style="text-align: center;">Eskaria egin den eguna/Jarduera egingo den eguna/Erakundea/Eskaria/Hartzailea/Eskolako arduraduna/Eranskinak/Erabakia</p> <p>Ahal den neurrian, jarduera ebalutzeko eskatuko zaio eskaria aurkeztu duen pertsonari.</p>	Kalitate eta Berrikuntzako zuzendariordea

eman la zabal zazu



Universidad
del Pais Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea